

«Euskal Herriko Mendiak»
gaiari buruzko sariketaren
bigarren saria, euskaraz.

Anie edo Ahuñamendiren deia

ESKAL HERRIKO MENDIRIK ALTUENA?

Anie edo Ahuñamendiko harkaitza euskaldunentzat eta lescundarrentzat leku abegitsu eta mitologiko bat da. Azken hauen ustetan, garai batean han bizi omen zen basajaun erraldoi eta indartsu bat.

Juan M^a Ansa

HISTORIAN zehar, lurralde gehienetan, jendeak, betidanik isladatu ditu inguruko mendietan beren izuak, fantasiak eta sorginkeriak, gizagaineko pertsonaiez horniturik. Mendez-mende gailur altuenak leku bakarti eta beldurgarri-tzat hartuak izan badira ere, tontorrek gainditzeko ohitura gureganatu ahala, urruntasun hori hausten joan da, gozamenerako bide bat bihurtuz. Hurbil dauzkagu adibideak, Piriniotan bertan begiratu, konturatu gara kataluniarrek Puigmal eta Canigou dutela begiko, Ossautarrek Middiko harkaitz zorrotza, eta Echotarrek berriz Bisaurin edo Atxerteko Gaztelua. Halaber guk ere, aintzakotzat hartu arren sona handiko mendiak diren Gorbeia, Anboto, Aralar, Aizkorri eta abar, baditugu beste batzuk, bere itxuraz eta goitasunez baliatuz, besteren gainetik agertzen zaizkigunak. Horrela, Huescatik datorren ardatz nagusiari jarraituz, Oza eta Zurizako gailurrei esker, Mendebaldeko Piriniotan aurkitzen ditugu Euskal Herriko mendirik altuenak: Hiru Erregeen Mahaiaiko tuturrua (2.434), eta bere alboan, Anie edo Ahuñamendiko gailur paregabea (2.504).

Xehetasunetan sartu ezkeror, egia da lehenengoa har genezakeela altuenentzat,



Izaba (814), Erronkari bailarako herririk nagusia. Garai batean, mendizaleak, Ahuñamendiko gailurrera helmugaratzeko asmoz bertatik abiatzen omen ziren, hamabi edo hamalau orduko jardunaldia osatuz.

kontutan edukirik Ahuñamendiko gailurra, kilometro bategatik bada ere, mugatik kanpo geratzen dela Bearneko lurraldeetan. Hala eta guztiz ere, behingoz beste eratako zatiketei uko eginez, sentimenduen mugak batzuetan aski izaten direla eta, inori ezer kendu gabe, onar dezagun euskaldunentzat mendi gogokoenetarikoa bat dela (1).

(1) Michel Sebastianek, argitaratutako "Cimas Pirenaicas" (1985) liburuan, gai honetaz honela dio: "Aunque situado en el Bearn, este pico es la montaña sagrada del País Vasco (Ahuñamendi), la montaña de las cabras".

Kontrabandoa dela eta

Erronkari aldetik Ahuñamendira joateko derrigorrezkoa izaten da Izabatik igarotzea. Garai batean, lehen mendizaleak, herri bertatik abiatzen omen ziren gauez, tontorrera helmugaratzeko asmoz, hamabi edo hamalau orduko jardunaldia osatuz. Kotxeak ugaritu ahala, Belagoako zelaia bihurtu zen abiapuntu egokiena urte batzuetarako, harik eta San Martingo Harriaraino errepide berria ireki zen arte.

Gu, gaurko edozein mendizalek bezala, udazkenak lehen pausoak emanak dituen garai honetan, Izabatik San Martingo

Harriaraino dauden 26 kilometroak kotxez aurreratzeko asmoz irten gara, ilargia eta izarrak bidailagun bakarrak ditugularik. Normalean ordu horietan ez dugu hitzegiteko gogo handirik izaten baina, bapatean, gutako norbaitek, garai batetako gautxoriak aipatzen ditu, halebria, tontorretara igo gabe beren zamak bizkarrean kargaturik mugaz bi alderdietara ibiltzen ziren mendizaleak. Beste solaskide batek dionez inguru hauek zamarien kabitoki paregabeak omen ziren.

– Halajaina, ez da harritzekoa, zerbaiti heldu beharko zioten lurralde menditsu hauetan bizirik irauteko!

Hariari helduz horrela jarraitzen du eten-gabe aparteko gertakizun bat kontatuz.

– Frantziako Iraultza iragan ondoren, Napoleón enperadorearen garaian, zenbait produktu estima handikoak izaten omen ziren mugaz bestalde, eta noski, dirua erakarri ere bai. Honek, adorea ematen zien inguruko jendei karreaz lanetan hasteko, nahiz eta estuasun batzuk pasa erazi. Produktu hauetariko bat espainiarrak Cuban eta Santo Domingon bildutako kafe ederra genuen eta Frantziar estima handikoa zenez, Zuberotar batzuk, Izabako lagun batekin, Belagoatik gorako borda batetan gorderik zegoen ia mila kiloko kafe zama pasatzeko tratua egin zuten. Pisu handia zela eta, dozena erdiko talde bat bildu zen, gutxienez bost joan-etorri egin beharko zituztela adieraziz. Lehenengo lauak makurrik gabe osatu zituzten eta bakarra falta zitzaien beren lana amaitutzat emateko. Denbora gutxitan hainbeste aldiz leku berberatik ibiltzeak dakarren arriskuaz jabeturik, eta batez ere zurrutaren ostean txalandaren batek pioka egingo ote zuenaren beldurrez, badaezpada neurriak hartzea erabaki zuten.

Erronkari partea pasa eta, azken zama leporatu ondoren, Belagoatik gora abiatu ziren Urdaite eta Eraintzeko bortutik erdibide egiten duen puntuan bazkari legea egitekotan. Propio zebiltzan hain goiz. Ilundu arte astirik bazutenez, bazkalondoren gizon bana zabaldu ziren bi lepo horiek aztertze-
ra, besteak pausaleku berean zirauten bitartean.

Bueltan heldu zirenean, Eraintzekoak ez zekarren berri onik. Goiko etxoletan mugazainak zeuden, eta ez hori bakarrik, baizik eta horietako bi, bide bihurtune batetan, harkaitz baten atzean, gorderik zelatan norbait azal zitekeenaren esperantzan. Eskerrak bederen, bestea, hain premiazkoa zitzaien albiste pozgarria ekarri iritsi zela. Bere aholkuak kontutan harturik, nahiz eta ibilaldi luzeagoa izan, libre zegoen Urdaiteko bideari ekitea erabaki ondoren, gau zohardiak emandako erreztasunaz baliatuz, egun hartako lana eragozpenik gabe betetzeko aukera izan zuten.

Gaueko hamarrak baino lehen, Urdatsi (2) dagokion Athoro auzoko Drunda baserrian gorderik zeukaten kafe guztia, ganbarako belar-pila batetan. Gau hartan zamariak bazuten ondo lo egiteko motiborik hurrengo goizean zerekin aurkituko zirenen susmo txarrik hartu gabe. Mugazainek berriz, bezperan jasandako ihakina zela eta,



Hiru Erregeen Mahaia (2.434). Normalean tontor hau hartzen da Euskal Herriko mendirik altuenatzat, zeren Ahuñamendiko gailurra, kilometro bategatik bada ere, mugatik kanpo geratzen da Bearneko lurraldeetan.

goiz-goizetik ekin zioten lanari, bereak eta bost bilatzen saiatuz. Athoroko baserriren batean kontrabandoa gordea zenaren usaina hartu ondoren, etxe guztiak hankaz gora jartzen hasiak ziren dagoeneko. Zerbait asmatu beharra zegoen agudo Drundako jendea txakur amorratuen hatzaparretatik salba zedin, eta ... bai ikaragarrikoa asmatu ere!

Baserriko amona aspalditik hik zorian zegoela jakinik, goizaldean azken hatsa emana zuenaren berri zabaldu zuten, Santa Graziko apaizaren bila zihozten bitartean. Honek, egia-
ren jakinean eta ganora handiko gizona izanik, hain larri zekusan jendea estutasun hartatik irteazearren, amore eman zuen laguntza prestatzeko. Ez zamariak salbatzeagatik, baizik eta Drundako mainada pobrea isun eta kartzelatik libre uzteagatik.

Erretorea, apaiz jantzi eta tresnak bereganatuz, denborarik galdu gabe, laister bideratu zen baserrirantz. Bere atarira iritsi orduko, arnasa lasai hartzen zuen bitartean, guardiak gerturatsen susmatu zituen. Elkar diosalak eman ondoren, mugazainek, solasari jarraipena ematearren, bere egonaldiaren zergatia galdetu zioten apaizari. Honek, zutasunez, erantzun zien etxeko amona zaharra goizaldean hila zela eta bere esku zegoen guztia egitera etorria zela, hau da, hildakoa oliatzera. Uniformentuek, zertxobait nahasturik, zer egin ezean gelditu ziren une batez, eta azkenean, beren bisitaren arrazoia argitu ondoren, baserriaren eta bertako nagusiaren izena hartu ezkerreko etxe-bizitza ikusitzat emango zutela adierazi zuten. Apaizak, egoeraren jabe eginaz, bakoitzak bere lanbidea zuela eta, nahiz samingarria izan etxekoentzat, denek ulertuko zutela beren jokaera arakatsen sartzen baziren ere, ihardun zien. Guardiiek, apaizaren estimua irabazi nahiean, heriotzeko une haiek errespetatuz, Jaunaren ordezkariaren egitekoa zegoela etxe hartan beraien bano esanez, bideari jarraitzea erabaki zuten bertakoentzat doluminak eman ondoren.

Handiena pasata zen, baina hala eta guztiz ere kafeak oraindik bere tokian jarraitzen

zuen. Hurrengo goizean Drundatik Urdatsa abiatu zen segizioa, jaun apaiza bere salmoak kantatzen, sasoiko lau gazte, hilketari gisa, zerraldoan kafea zeramatela, eta xahakotar (3) elizkideak iruzurrak ohartu gabe, dolutalde bitxi eta ugari bat osatuz. Hileta eta ehorzketa egin ondoren gure "amona" han gelditu zen, Santa Graziko hilerrian luremanta, denen ustez, Josafate-ra joateko eguna iritsi arte. Zamariak ordea, ez zuten gauza berbera pentsatzen eta, egun hartan bertan, hilobia altxatuz, zerraldoa eta kafea aidean desagertu erazi zituzten handik, gaueko isiltasuna lekuko bakarra zutelarik. Kafea, frantsesak poliki-poliki dastatzeko modukoa izango zen noski eta, amona berriz, handik zortzi egunetara, oraingoan bai hil ondoren, gau erdiz ezkutu-
an ehortzia izan zen etxeko batzu bakarrik present zirelarik.

San Martingo Harria

Hainbeste berriktarekin ia ahaztuta geunden mendira gindoazela. Belagoa, Juan Pito eta C.D. Navarraren aterpea atzean utziak ditugu jadanik. Konturatu gabe Ernaz gainean gaude motorraren hotsa ordu batzuetarako gelditzen dugularik. Orain arte isiltzeke etorri arren, hain ospetsua den Harria ondoan dugula eta, berriro hizketan hasteko prest daukagu gure "Ciceron Jakintsua". Eskerrak beste batek, bere asmoak igaririk, horrela moztzen diola:

– Hi, ez haiz bada orain harri zahar honen istorio osoa kontatzen hasiko ezta? Gainera honi buruz guk ez dena zekiagu, eh!

Erantzun honek ez du ematen meilarik ere egiten dionik, eta, patxada handiz honela dihardu:

– Dena dakizuela! Botak jartzen dituzuen bitartean utz iezadazue galdetzen bederen XIV. mendetik egiten den Hiru Behien Festa, zein urtetan ez zen ospatu.

Berriro ere ezustean harrapatu gaituela konturatuz, bere erantzunaren zai gelditzen gara baldintza batekin, gero mingainari deskantsu eman eta oinak martxan jartzekotan.


– 1944.ean. Frantzia nazien eskuetan zegoelarik, Festaren aitzakiarekin Baretous-darrek Espainiarantz ihes egingo ote zutenaren beldurrez, ez zen ospakizunik antolatzeko utzi.

Ahuñamendirako bidea

Gaueko freskotasuna nabaritzu eta izarrak zeru osoa estaltzen dutelarik, ibilgiro ezin ederragoa izango dugulakoan abialdian hasera ematen diogu. Bide honi sarritan ekitea tokatu zaigunez, adikune berezirik prestatu gabe, Arlas azpiko iturrian botilak bete eta, Pescamou-ko lepo ingurura hurbiltzen gara. Zertxobait aurrerago, Murlongeko harkaitzpera bideratzeko ahaleginetan, Espeleologoaren aterpea ezkerrean bistatzen dugu. Nahita, Ahuñamendirako ohizkoa den bidea bazterraratuko dugu, zeren gaur, normalean erabiltzen diren bideak alde batetara utzirik, Larrako harri-basamortua osatzen duten tontor guztiak zuzenki gain-

(2) Urdats, Santa Grazi, Sentazi, herri berdineko izenak dira.

(3) Urdats edo Santa Graziko biztanleak halebria.



Lescungo partean kokaturiko Laberouat-aterpetik, basoa zeharkatzen duen bide sendo bat dela medio, Countende (2.338) eta Soum Couy (2.315) artean zabaltzen den Aniesko lepora ere igo daiteke.

ditzeko asmoak bultzatzen gaitu.

Egunsentia datorkigu Soum Couy eta Countende tartetik disdiraz, eguzki goiztiar-
rak bidaltzen dituen lehen printzak Ahuñamendiko tontorra epeltzen duen bitartean. Guk berriz, Hego-Ekialde norabidea hartzen duen gailurreriari jarraitzea erabakitzen dugu. Karaitz ebakorrez osatutako leizezuloz beterik dagoenez, eguraldi txar edo laino egunetan erabat ezinezkoa gertatzen da toki hauetan pausorik ematea. Gaur oster, hor gabiltza ahalik eta azkarren menperatu nahiean, irmo zapalduz oreka galdu gabe. Azaletik ur eskasiaren itxura gogorra erakusten badu ere, Larra, bere altzoan, ur korrontez osatutako izugarritzko ibai sare zulatua dagoela esan behar da.

Orain dela hamarren bat urte, Ukerdi aldean dagoen BU-56 leizezuloan, espeleologo batzuek, San Jorge ibaiari jarraituz eta hamabi kilometrotako galeria arakatu ondoren, -1.338 metroko sakontasuneraino iritsi ziren.

Gainez-gain joanez, Anierantz hurbiltzen garen eran, gure lehen helburua den Añelarrako gailurreria hegoaldera zabaltzen dela ikusten dugu. Horregatik, erdian gelditzen zaigun haran txiki batetara jeitsi ondoren, biderik gabe eta arreta handiz, harrizko malda trakets baten bidez goiko gainean jartzen ditugu oinak (2.358).

Bertan hatsaldi labur bat hartu ondoren, gure oldez aukeratutako bideari jarraipena emanez, alboan altxatzen den Castetne-tontor (2.340) erraza zeharkatzen dugu Anie azpiko lepoan kokatu arte. Nahiz eta bide normala ezkerretarantz gelditu, zuzenean gora jotzea bururatzen zaigu.

Teknikoki aise izanik ere, aldapa gogorra gainditu beharra dago, horregatik, emeki-emeki, batzuetan eskuz baliatuz, gure aha-
legin guztiak egiten ditugu. Aldaparen adierazgarri bezala arnasotsak aspalitik nabar-

mentzen hasiak dira baina, asken harrizta nola-hala atzean utzirik, noizbait goiko gailurrera (2.504) iristen gara.

Ezin liteke eserleku hobeagorik aurkitu. Erdi-Pirinioko osotasuna begi bistan zabaltzen delarik, gertuago dauden Atxerito, Petretxema, Hiru Erregeen Mahaia, Lakartxela, Ori eta abar ... ere aski ezagunak egiten zaizkigu. Bestalde. Aspe haranetik gora, Lescun-go herria non dagoen begi ematen saiatzen gara zela berde batetan zintzilik antzeman arte.

Baratzak eta Porruak

Inguruko mendirik altuena dela eta ez da harriztekoa garai batetako lescundarrentzat leku gogokoena izatea bere burutik sortutako imajinazioaren pasadizoak eta mitologiaren gertakizunak kokatzeko. Beraien ustetan han bizi omen zen basoko izeien neurria gainditzen zuen basajaun erraldoi eta indartsu bat. Neguko elur eta izotzak menperatuz, punta-puntan zabaldutako baratze oparo batetan jarduten zuen lanean denbora luzean, et ez nolanahiko etekina lortuz gainera. Bertan hazitako landare berezietatik erauzitako zuko edangarria omen zuen bere indar neurrigabeko iturri. Hori jakinda ere, ez zen jende asko izaten landare desiratuak lapurtzeko ahaleginetan ausartzen zenik, izan ere, beldurgarria izan zitekeen erraldoiak, sorginen eta inpernuko deabruen laguntzari esker, haran osora igo-
rritako ekaitz eta trumoi zaparrada.

Guzti hau sinestezina egiten bazaigu ere, ez ordea Santa Graziko apez bati suertaturiko ondoko gertaera. Behin batez emakume bat joan omen zitzaion damuturik bere erruak aitortzera. Bere pekatua, dozena erdi porru lapurtzea besterik ez zenez, apeza, entzun ondoren, lasaitu nahiean horrela

mintzatu zitzaion:

– "Hori ez da ezer. Utz nazazu bakean zure porruekin eta zoaz komunio on bat egitera". (4)

Andreak ordea, lehen baino urduriago sentituz, bere kezka arrazoi ezkutua bapatean bota zion:

– Porruak ordea zure baratzetik hartutakoak ziren!

Apeza, ezustean harrapaturik, isilik gertatu zen une batez zer egin ezean. Azkenean, bere barnetik irtetzen zitzaion haserrearen menperatuz, honela erantzun zion:

– Zoaz bakean Jaunaren izenean. Baina hemendik aurrera ez zaitez ahanzt bi porru klase izanen direla: porruak eta apezporruak.

Itzulerako bidea

Zerbait jateko atsedentxo bat egiten badugu ere, gaurkoan badagoela oraindik non ibili eta bideari garraizkio, oraingoan Anaye sakana dakusagularik. Sortalderantz abiatzen den bide ezkutu bat aurkitu ondoren, bere aldapa malkartsuetatik lerratuz txistu batean jartzen gara Countendeko lepoan (2.230). Lehenengo harkaitzak esku-bitara utziz gero, bide estu batez, atzean dagoen azken tontorra (2.338) gainditzeko aukera dugu. Egia esan, nahiz eta Aniepean gelditu, Countende-ko erpin honek, baduela bere nortasuna erakusten digu gainez-gain jarraitzen duen gailurreri zorrotza dela medio.

Jetsierako lehen pausoak arretaz egin behar dira, labaindu edo eta bata besteari harrikadaren bat jotzeko arriskua dagoelako. Aldapa amaiturik, Anie aldera zertxobait

(4) Yon Etxaideren "Joanak joan" liburutik hartua 43. horrialdean

atzeratu ondoren, Ipar-Mendebalderantz jotzen dugu inongo biderik gabe, Ahuñamendirako ohizkoa den bidearekin topatzeko asmoz, Aniesko lepo inguruan bat egiten dugularik. Ibiliz-ibili badaramatzagu ordu batzuk gelditu gabe eta dagoeneko nekea ere sumatzen hasiak gara, baina hala eta guztiz ere lepoa zeharkatuz Soum Couy-ra igotzen den bideari heltzen diogu. Goiko bizkarrera iritsi orduko, eskubira joaz, azken malda gainditzen dugu tontor hirukoitz hau menperatuz (2.315).


Aspaldidanik Ori eta Lakoratik hodeiak agertzen hasiak dira eta eguraldia txartzat jotzeko itxura hartzen ari da. Guk, badaezpada ere, Ipar norabidea hartuz, lurrean margotutako marka urdinei jarraitzen diegu lehen telearrastreak dauden inguruetara hurbiltzearen. Ondoren, Aretaraino jeisten den aldi zabal bat hartzen dugu une luze batez, harik eta Pescamou-ko etxolak bistatu arte. Hauek azpian utzirik, berriro aldapatan gora sartuta, izen berberako lepora irtetzen gara, Arlas-ko tontor zorrotza gure gainean dugularik. Gaurko azkena denez, gure animoak berpizten dira zati motz baina maldatsu honi aurre egiteko. Gelditzen zaizkigun indar eskasak agotuz, ia abaildurik, gailurrean (2.044) etzanda egoiteko momentua iristen zaigu noizbait.

Agurra

Aldats gehiago ez direla igo behar jakiteak, badirudi berriro gorputza berpizten duela bere onera ekarriz. Bitartean, gaur igotako gailur sailei azken begirada luzatzen diegu agurra eman nahiean. Laioaok, zerua ilundu ondoren, mendiak ere ezkutatu nahirik dabilzala sumatzen ditugu. Denetik noski, lehenik Ahuñamendiko kitorra bereganatzen du guregandik aldenuz.

Aurtengoz behar bada ez zaitugu jadanik ikusiko, zuretzat negua aurki etorriko baita.

Negua iritsi orduko, elur malutak txuriz jazen zaituzte hurrengo udaberrirarte. Nik berriz, nonnahi egonik, zure deia entzun nahi nuke berriro ere ene begietan izateko.



Laster basoilarrak gordeko dira eta hontza- ren uluak isilduko, bitartean, ekaizte garaian sortutako haize burruna beldur- tien artean, otsoen aiuriak nagusituko dira. Orduan elur maluta xeratsuak, txuriz estali- rik, ezitsa jantziko zaituzte hurrengo uda- berrirarte. Nik berriz, nonnahi egonik ere, zure deia entzun nahi nuke gauaren isila- suna urratzen duelarik, eta oihartzunak soi- nuztatutako oihu kadentsuaren bitartez, zure gura izan berriro ere ene begietan izateko.

ORDUTEGIA

San Martingo Harria.....	0'
Pescamouko lepoa.....	30'
Espeleologoen aterpea.....	50'
Añelarra.....	2 h 30'
Ahuñamendi.....	3 h 45'
Countende.....	4 h 45'
Aniesko lepoa.....	5 h 20'
Soum Couy.....	5 h 45'
Pescamouko lepoa.....	7 h 00'
Arlas.....	7 h 15'
San Martingo Harria.....	7 h 45'/8 h



Argazkiak: Juan M.ª Ansa

San Martingo Harria goizaldean abiapuntu bezala hartuz, Larrako harribasamortuan aurkituko gara egunsentirako Arlas-ko tontorra (2.044) bizkarrean utzi dugularik.

RESUMEN

EL Anie o Ahuñamendi, que incluso da su nombre en euskera a toda la cadena pirenaica, no se considera oficialmente el monte más alto de Euskadi porque queda como a un kilómetro en territorio de Bearne. Sobre sus 2.504 metros deja ver su pirámide regular desde muy lejos y contempla a sus pies emocionantes historias de contrabandistas (el café que se llevaba hasta Santa Grazi, donde había que esconderlo con todas las ayudas locales) y enconadas reyertas de pastores (de las que da testimonio el Tributo de las Tres Vacas).

El autor va recordando esas historias al comienzo de la travesía que partiendo muy de madrugada del collado de Eraiz, les permite ascender al Añelarra y al Anie para encadenar luego con las ascensiones al Countende y al Soum-cuy. Es una dura y hermosa travesía por encima de los 2.000 metros, impensable de hacer en el día cuando había que subir andando desde Izaba.

